

# KOOPERATIBAK

## 1. SINADURA ELEKTRONIKOA ESKATZEKO AHALMENA DUTENAK

**ESKATZAILEA** KOOPERATIBAREN izenean sinadura elektronikoa eskatzeko legitimazioa duen pertsona fisikoa da. Ondokoak izango dira:

- **PRESIDENTEAK, PRESIDENTEORDEAK ETA ADMINISTRATZAILEA BAKARRAK, legezko ordezkari** gisa..
- Erakundearen izenean **SINADURA ELEKTRONIKOA ESKATZEKO AHALORDEA** duten **borondatezko ordezkariak**. Ahalorde hori beren beregi jaso behar da, eta ezinezkoa da beste baten edo batzuen ondorioz bereganatzea, horiek orokorrak edo zabalak izan arren.

## 2. AGIRIAK

- **Kooperatiben Erregistroaren ziurtagiria**, eskabidea eskatu baino 15 egun baliodun lehenago igorri dena. Horren bidez ondoko puntuak egiaztatuko dira:
  - a) Kooperatiba gaur egun **INSKRIBATUTA** dagoela.
  - b) Data horretan, eskatzailea Kooperatibaren **PRESIDENTEA, PRESIDENTEORDEA EDO ADMINISTRATZAILE BAKARRA** izatea, edo erakundearen izenean **SINADURA ELEKTRONIKOA ESKATZEKO INSKRIBATUTAKO AHALORDEA** izatea.  
Borondatezko azken ordezkari horri dagokionez, eskatzailearen ahalmena **ahalordea egilesteko jatorrizko eskrituraren** bidez egiaztatu daiteke, baldin eta hori eskabide egin baino 15 egun baliodun lehenago eman bada.
- Eskatzailearen **NANa**, (**AIZ**, Europar Batasuneko herrialdeetako edo Europako Esparru Ekonomikoaren barruko estatuetakoa herritarren kasuan, jatorrizko herrialdeak igorritako indarreko nortasun-agiriarekin batera, eta **bizileku-txartela** erkidegoz kanpoko herritarren kasuan).
- Erakundearen **identifikazio fiskaleko kodearen** (IFK) kopia.

## 3. ZIURTAGIRIA ESKURATZEKO PROZEDURA

Sinadura elektronikoaren ziurtagiria bi modu hauen bitartez eskuratu daiteke:

- a) **Bertaratuta**: Eskatzailea Bilboko Capuchinos de Basurto kalearen 4. zenbakian kokatutako bulegoetara bertaratzen da, eta ziurtagiria eskura jasoko du.
- b) **Baimenaren bidez**: Eskatzaileak eskabidea bete eta **sinatu** egiten du ("*www.bizkaia.net/Ogasun eta Finantza Saila/ Ogasun eta Finantzen Bulego Birtuala/ Txartelak eskatzeko Formularioak*" web orrian eskuragarri dituzue), eta **notarioaren aurrean** (horretarako eskabidearen bigarren orria erabilita):
  - Sinadura hori **legitimat**u behar da, eta
  - **Beste pertsona bati** ziurtagiria gure bulegoetan bere izenean eta goian aipatutako agiriak ikusita jasotzeko baimena eman behar da.

**Kasu horretan, eskatzailearen NANaren edo nortasun-agiriaren kopia erakutsi behar da.**